

Preso bat topatu dute hilik Zaballako espetxean

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA :: 27/11/2023

Salhaketa Araba Elkartearen arabera, 47 urteko jatorri hegoamerikarreko gizonezkoa da hildakoa, eta bere burua urkatu du.

Larunbatean bere ziegan aurkitu zuten hilotz preso, baina espetxeak ez du gertaeraren berri eman. Behin Salhaketak albiste emanda, Jaurlaritzak EITBri baieztatu dio heriotza.

Salhaketako Julen Guarestik EITBri azaldu dionaren arabera, egunak ziren preso ez zegoela ondo, eta larunbatean bere buruaz beste egin zuen. Elkartek adierazi du preso bakarrik zegoela bere ziegan. Horrek esan nahiko luke ez zaiola suizidioaren aurkako protokoloa aplikatu, protokoloak eskatzen baitu preso bakarrik ez egotea.

"Euskal espetxe ereduak huts egiten du"

"Espetxea eta birgizarteratzea bateraezinak dira, antagonikoak", adierazi dio EITBri Guarestik. "Kartzelak buruko gaixotasunak izateko baldintzak sortzen eta areagotzen ditu", salatu du, presoaren egoerari erreferentzia eginez. Bi urte dira Jaurlaritzak EAEko espetheen eskumena jaso zuela, eta Guarestiren ustez ez da funtsezko aldaketarik izan. Eskumen aldaketaz geroztik Zaballan hiltzen den bigarren preso da asteburu honetakoa. Apirilean, Malek izeneko gaztea aurkitu zuten ziegan hilotz. Jaurlaritzak adierazi zuen Malek ez zegoela suizidioen aurkako protokoloan, familiak adierazi bazuen ere bere buruaz beste egiten saiatu zela aurretik. "Euskal espetxe ereduak huts egiten du, betiko eredu izaten jarraitzen duelako", salatu du Guarestik.

Preso bat topatu dute hilik berriro ere Zaballa espetxean (argia.eus)

<https://eh.lahaine.org/preso-bat-topatu-dute-hilik>